

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Gazteria

Ideia gazteen Haziak 2018 lehiaketa: deialdia eta hori arautzen duten oinarriak

2018ko martxoaren 9an agindako ohiko bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak Ideia gazteen Haziak 2018 lehiaketaren deialdia eta hori arautuko duten oinarriak onetsi zituen.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1. artikuluan xedatutakoaren ildotik, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko martxoaren 9an

Gazteria Zerbitzuko burua
OSKAR FERNÁNDEZ JARAS

“Ideia gazteen haziak” lehiaketaren oinarri arautzaileak (2018)

1. Helburua

Lehiaketaren helburu orokorra da gazteek, herritarrak diren heinean, bere aisialdia bete-betean eraikitzea eta Gasteizko gizarte bizitzan parte hartzea.

Helburu espezifikokoak hauek dira:

– Taldeko lana bultzatuz gazteen ekimen kolektiboak bideratzea eta gaztetik heldua izatera prozesuan bere trebeziak eta garapen pertsonala indartzea.

– Gasteizko udalerriko gizarte bizitza aberastea, gazteen proiektu berriak eta parte hartzeak hedatuz.

– Gazteen ahalmen sortzailea eta eraberritzailea hedatzea eta gizartean gazteriaren irudi positiboa bultzatzea.

– Hiriko gazteek elkar ezagutzea erraztea.

2. Hartzaileak

Lehiaketaren hartzaileak hauek dira: Gasteizen bizi, ikasi edo lan egiten duten 14-30 urte bitarteko gazteak. Bi kategoria ezarriko dira: 14-17 eta 18-30 urte bitartekoak.

Taldeko ideiak faboratuko dira, hau da, proiektu bakoitzeko 3 pertsona (gutxienez) egotea nahigarria izango da. Baina, proiektu bat deialdi honen jarduera-eremu batean nabarmena bada, irabazle izan ahal izango da bakarka.

3. Jarduera-eremuak eta proiektu motak

Proiektuak 2018. urtean garatuko dira eta hurrengo eremuetan finkatu beharko dira (aukerakoak):

- a. Kultura.
 - b. Kirola eta kirol jarduerak.
 - c. Osasuna eta bizitza-kalitatea.
 - d. Ingurunea eta iraunkortasuna.
 - e. Sormena eta berrikuntza.
 - f. Informatzeko eta komunikatzeko teknologiak.
 - g. Hezkuntza librea eta aisialdi hezigarria.
 - h. Elkartasuna eta sentsibilizazioa.
 - i. Kultura aniztasuna eta integrazioa.
 - j. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.
 - k. Euskara eta euskal kultura.
 - l. Eta oro har, Gazteria Zerbitzuak kudeatzen duen beste edozein gai.
- Gazteentzako eta udalerrirako proiektu erakargarriak izan behar dira.

4. Betebeharrak

Proiektuek honako betebeharrak bete behar dituzte:

- a. Gasteizen bizi, ikasi edo lan egiten duten 3 eragile izatea.
- b. Gasteizko udalerrian sustatzen diren proiektuak izan behar dira; dena den, onartuko da proiektuaren hainbat atal udalerritik kanpo garatzea.
- c. Gasteizko udalak finantzaturako proiektua ez izatea inongo biderik.
- d. Epaimahaiaren erabakia jakin baino lehenago hasitako proiektuak aurkezteko onartuko da, baldin eta bukatu gabe badaude.
- e. Irabazi-asmorik gabeko proiektua izatea.

Partaideek bi aspektu hartu behar dituzte kontuan:

- a. Talde bakoitzak, gehienez, bi proiektu aurkeztuko ditu.
- b. Pertsona berak 3 talde-proiektutan parte hartzeko aukera izango du.

5. Aurkeztu behar den dokumentazioa

Proiektu bakoitzarekin batera hauek aurkeztu behar dira:

- a. Eskaera-orria betetzea (1. eranskina).
- b. Eskaera egiten duenaren NANaren fotokopia.
- c. Adingabekoek (18 urte baino gutxiago), deialdira aurkezten badira, II. eranskina bete behar dute. Bertan, gurasoen edo tutorearen baimena ezinbestekoa izango da.
- d. Egingo diren ekintzen proiektu zehaztua. (III. eranskina).

6. Eskaerak aurkezteko tokia eta datak

Proiektuak aurkezteko epea: deialdia ALHAOean argitaratu eta hurrengo egunetik maiatzaren 7ra arte.

Proiektuak posta elektronikoaren bitartez bidali behar dira, hurrengo helbidera haziak@vitoria-gasteiz.org.

Proiektuak egiteko edo eranskinak betetzeko Gazteria Zerbitzuaren teknikarien laguntza eska daiteke. Hitzordua eskatzeko mezu bat bidali behar da hurrengo helbidera haziak@vitoria-gasteiz.org.

7. Sariak

Hainbat sari mota egongo da.

– A. Modalitatea: Haziak bonua. Bonu hori hainbat laguntza eskuratzeko balia daiteke, hautatutako proiektua gauzatu dadin. Esaterako: proiektuaren behin betiko diseinua finkatzeko orientazioa edo aholkularitza, ekintza garatzeko espazio jakin bat erabiltzeko baimena, ikus-entzunezko baliabideak uztea, proiektuaren zabalkundea, hainbat gaitan diharduten profesionalen laguntza ematea edo proiektua erakutsi, jakinarazi edo hedatzeko laguntza.

Gazteria Zerbitzuaren esku geratuko da proiektu jakin bati sari gisa emango zaion bonu mota erabakitze eskumena; baita, hala beharko balitz, beste bonu mota bat ematea ere.

– B Modalitatea: Kontratu-bonua. 18 eta 30 urte bitartekoen kategorian aurkeztutako proiektuei dagokienez, Gazteria Zerbitzuak kalitatearen eta gaiaren ikuspegitik merezi duten proiektuak sari ditzake, udalak garatzen dituen programazioetan parte hartzeko aukera emateko.

– C Modalitatea: beste bien uztarketa. Gerta daiteke proiekturen batek A eta B modalitateetako sariak irabazteko eskakizunak izatea. Kasu horretan bi kategorietako sariak eskuratzeko aukera egongo da.

Gazteria Zerbitzuak, deialdi horretako sariak hornitzeko, gehienez ere, 22.000,00 euroko kopurua izango du (Gazteria Zerbitzuaren 2018ko ekitaldiaren aurrekontuko 0116 2371 22734 partidaren kontura).

Baliabideen banaketa proiektuen beharren arabera izango da eta bonu bakoitzeko neurria egokitua izango da.

8. Lehiaketaren faseak

“Ideien gazteen Haziak” lehiaketa bost fasetan gauzatuko da:

1. fasea: Deialdia. Ideia-lehiaketaren oinarri arautzaileak argitaratuz hasiko da lehiaketa: Helburua proiektuak jasotzea izango da (maiatzaren 7ra arte).

2. fasea: “Ideia gazteen Haziak” topaketa. Gazteria Zerbitzuak aurretik hautatu diren proiektuen arduradunei jakinaraziko die erabakia, eta maiatzaren 11n egingo den “Ideia gazteen Haziak” topaketara gonbidatuko ditu. Topaketak dituen helburuak hauek dira:

– Proiektu bakoitza beste taldeei aurkeztea.

– Proiektuak hobetzeko proposamenak egitea.

– Antzeko proiektuen edo proiektu osagarrien arteko kolaborazioak sustatzeko ahaleginak egitea.

– Aurreko edizioetan eginiko proiektuak ezagutzea.

Lehiaketan jarraitzeko, ezinbestekoa izango da topaketa horretara joatea.

3. fasea: proiektuak berregitea. Topaketa egin ostean, talde sustatzaile bakoitzak bere proiekturako egokien iritzitako hobekuntzak egin eta berriro aurkezteko 5 eguneko epea izango du, aukera hau hautazkoa da (maiatzaren 16ra arte).

Behin betiko proiektuak berriro haziak@vitoria-gasteiz.org helbide elektronikora bidaliko dira.

4. fasea. Proiektu irabazleak hautatzea. Behin betiko proiektuen bertsioak jaso eta gero, epaimahaiak epaia emango du maiatzaren 25ean, Gasteizko Udalaren web orrian www.vitoria-gasteiz.org.

9. Proiektu irabazleak hautatzea

Gasteizko Udaleko Gazteria Zerbitzuak (Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saila) emango ditu oinarri horietan jasotako sariak; berari dagokio epaimahaiak emandako proiektu irabazleen proposamena Tokiko Gobernu Batzordera eramatea, han onets dadin.

Epaimahaia osatuko duten kideak hauek izango dira:

- Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko 2 teknikari.
- Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzuko teknikari bat.
- Gasteizko 2 gazte.

Proiektuak hautatzerakoan, hurrengo irizpideak hartuko dira kontuan:

- Proiektuaren formulazioa (35 puntu gehienez):
 - Zehaztasuna, argitasuna eta laburtasuna (10 puntu gehienez).
 - Generoaren ikuspuntua sartzea (10 puntu gehienez).
 - Proiektua euskaraz sortzea eta garatzea (10 puntu gehienez).
 - Gazteria Zerbitzuaren helburuen egokitzapena (5 puntu gehienez).
- Originaltasuna eta izaera berritzailea (15 puntu gehienez). Proiektu berritzailea izatea baloratuko da (edukiak eta metodologia).
- Taldeko proiektua izatearen kasuan (10 puntu).
- Beste gasteiztar gazte batzuei proiektuan parte hartzeko aukera ematea (20 puntu gehienez).
- Proiektuaren bideragarritasuna, giza baliabideei, baliabide ekonomikoiei eta materialei dagokienez (10 puntu gehienez).
- Proiektuaren komunikazio eta zabaltze estrategia (10 puntu gehienez).

Puntuazioa orotara: 100 puntu.

Sariak orekaz banatuko dira 14-17 eta 18-30 urte bitarteko adin-tarteen artean.

10. Irabazleen betebeharrak

Saria jasoko duten pertsonak honako betebeharrak bete beharko dituzte:

- a. Proiektua edo programaren ardurak bere gain hartzea.
- b. Saria jaso eta gero, proiektuaren edukia ez aldatzea, baldin eta Gazteria Zerbitzuak onetsi badu.
- c. Gazteria Zerbitzuak proiektua abian jartzeari egingo dizkion jarraipenak eta egiaztapenak onartzea.
- d. Proiektua zabaltzeko egingo diren publizitate-materialetan, erakusketan edo ikuskizunetan Gasteizko Udalaren laguntza aipatzea.
- e. Proiektua zabaltzerakoan (publizitatea, informazioa...) jaiotza, arraza, sexua, erlijioa edo iritzia bezalako arrazoiengatik diskriminatzen duten hizkuntza eta irudiak ez erabiltzea.
- f. Proiektua, programa edo ekintzak zabaltzerakoan, euskararen erabilera arautzen duen legea aplikatzea.

11. Jasotako saria justifikatzea

- a. Proiektu irabazlearen ekintzak behin bukatu eta gero, ezinbestekoa izango da Gazteria Zerbitzuarekin batera esperientziaren balorazioa egitea.
- b. Balorazio horretara eraman beharko den dokumentazioa, gutxienez, hau izango da:
 - Garatutako ekintzaren memoria zehaztua.
 - Ekintza zabaltzeko erabili diren publizitate-material guztien ale bat; esaterako: liburuxkak, afixak, liburuak, bideoak, e.a.
- c. Ekintza bukatzerakoan, justifikazioa emateko epea 30 egunekoa izango da.



www.vitoria-gasteiz.org/haziak
www.vitoria-gasteiz.org/haziak

IDEIA GAZTEEN HAZIAK LEHIAKETA CONCURSO HAZIAK DE IDEAS JÓVENES

I. ERANSKINA ANEXO I

PROIEKTUAREN ARDURADUNA –PERSONA RESPONSABLE DEL PROYECTO

Izen-abizenak-Nombre y apellidos:

NAN-DNI: Jaiotze data-Fecha de nacimiento:

Helbidea-Dirección:

Posta elektronikoa-E-mail: Telefonoa-Teléfono:

TALDEKO BESTE KIDEAK –OTRAS/OS MIEMBROS DEL GRUPO

Izen-abizenak-Nombre y apellidos:

NAN-DNI: Jaiotze data-Fecha de nacimiento:

Helbidea-Dirección:

Izen-abizenak-Nombre y apellidos:

NAN-DNI: Jaiotze data-Fecha de nacimiento:

Helbidea-Dirección:

Izen-abizenak-Nombre y apellidos:

NAN-DNI: Jaiotze data-Fecha de nacimiento:

Helbidea-Dirección:

Izen-abizenak-Nombre y apellidos:

NAN-DNI: Jaiotze data-Fecha de nacimiento:

Helbidea-Dirección:

Kide gehiago izango bazinete, zuen datuak eman behar dituzue. - Si sois más personas, tenéis que añadir vuestros datos.

Zure datu pertsonalak "Jarduerak kudeatu eta zabalzea" fitxategian sartuko dira, honako helburu honekin: "Udarek antolatutako interes kultural edo sozialak dituen jarduerak kudeatu, zabaldu eta sustatzea". 15/99 Lege Organikoa aitortzen dituen eskubidez baliatu nahi baduzu, jo ezazu Vitoria-Gasteizko Udaleko argibide bulegoetakoren batera.

Sus datos personales serán incluidos en el fichero "Gestión y difusión de actividades", cuya finalidad es gestionar, difundir y fomentar actividades de interés cultural o social organizadas por el Ayuntamiento. Puede ejercer los derechos que reconoce la Ley Orgánica 15/99 dirigiéndose a las Oficinas de Información del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



www.vitoria-gasteiz.org/haziak
www.vitoria-gasteiz.org/haziak

IDEIA GAZTEEN HAZIAK LEHIAKETA
CONCURSO HAZIAK DE IDEAS JÓVENES

II. ERANSKINA : 14-17 Kategorian parte hartuko duten taldeak betetzeko

ANEXO II: A rellenar sólo por los grupos que se presentan a la categoría de 14 a 17 años

ADINGABEKOENTZAKO GURASOEN EDO TUTOREAREN BAIMENA

PERMISO DE LA MADRE/PADRE O TUTORA/TUTOR

Talde bakoitzeko kide guztiek betebeharreko datuak – *Datos obligatorios para todos los miembros del grupo*

Seme-alabaren Izen-abizenak-*Nombre y apellidos del/la menor:*

Gurasoaren edo tutorearen datuak – *Datos de la madre/padre o tutora/tutor:*

Izen abizenak-*Nombre y apellidos:*

NAN/Txartel komunitarioa/Pasaportea/Egoitza txartelaren zenbakia:

DNI/Tarjeta comunitaria/Pasaporte/Permiso de residencia:

Nire seme-alabari baimena ematen diot "Ideia gazteen Haziak" lehiaketan parte hartzeko (2015ean).

Aldi berean, nire baimena ematen dut helburu pedagogiko edo dokumentalarekin adingabeei ateratako argazkiak argitarazteko.

Doy permiso a mi hijo/hija para participar en el concurso "Ideas jóvenes Haziak" (2015).

Al mismo tiempo, autorizo la publicación de fotografías del/de la menor con fines pedagógicos o documentales.

Aita, ama edo tutorearen izenpea – *Firma de la madre/padre o tutora/tutor*

Zure datu pertsonalak "Jarduerak kudeatu eta zabaltzea" fitxategian sartuko dira, honako helburu honekin: "Udalak antolatutako interes kultural edo soziala duten jarduerak kudeatu, zabaltu eta sutatzea". 15/99 Lege Organikoak aitortzen dituen eskubideez baliatu nahi baduzu, jo ezazu Vitoria-Gasteizko Udaleko argibide bulegoetakoren batera.

Sus datos personales serán incluidos en el fichero "Gestión y difusión de actividades", cuya finalidad es gestionar, difundir y fomentar actividades de interés cultural o social organizadas por el Ayuntamiento. Puede ejercer los derechos que reconoce la Ley Orgánica 15/99 dirigiéndose a las Oficinas de Información del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



www.vitoria-gasteiz.org/haziak
www.vitoria-gasteiz.org/haziak

IDEIA GAZTEEN HAZIAK LEHIAKETA CONCURSO HAZIAK DE IDEAS JÓVENES

III. ERANSKINA ANEXO III:

Erabili gidoi hau zure proiektuaren nondik norakoak azaltzeko. Saia zaituz idazteko ematen diren tarteak erabiltzen. Hala ere, informazio gehigarrik erantsi edo gehitu nahiko bazenu, eskaerarekin batera aurkez zenezake. Gidoia pdf dokumentu honetan bertan bete eta posta elektronikoz bidali:

Utiliza este gui3n para explicar los pormenores de tu proyecto. Intenta escribir utilizando los espacios que se ofrecen.

A3n as3, si quisieras a3adir o adjuntar m3s informaci3n, puedes presentarla junto a la solicitud. El gui3n puedes rellenarlo en este pdf y enviarlo por correo electr3nico.

PROIEKTUAREN IZENA – NOMBRE DEL PROYECTO

PROIEKTUAREN LABURPENA (azaldu gehienez 30 lerroetan zer egin nahi duzuen) RESUMEN DEL PROYECTO (explicad en un m3ximo de 30 l3neas qu3 quer3is hacer)



www.vitoria-gasteiz.org/haziak
www.vitoria-gasteiz.org/haziak

Sustatzaileei buruzko informazioa (zeuen buruari buruzko informazioa emateak aukera emango digu proiektua aurkeztera animatu zaituztena ezagutzeko, proiektua ateratzeko orduan ze ekarpen egingo duzuen eta proiektua egiteak ze ekarpen egingo dizuen zuen bizipenetan. Azaldu, hortaz, proiektuari lotutako motibazioak, interesak, zaletasunak, ikasketak, lanbidea, taldearen nondik norakoak...).

Información sobre las personas promotoras (añadid información sobre vosotras y vosotros mismos para conocer mejor qué os motiva a presentaros al concurso, qué vais a aportar al proyecto y qué vais a ganar con esta experiencia. Explicad vuestros intereses, aficiones, estudios, profesión, el grupo, etc.).



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



www.vitoria-gasteiz.org/haziak
www.vitoria-gasteiz.org/haziak

Proiektuaren helburuak. Zertarako egin nahi duzue?

Objetivos del proyecto. ¿Para qué queréis hacerlo?



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



www.vitoria-gasteiz.org/haziak
www.vitoria-gasteiz.org/haziak

Proiektuaren sendotasuna (azaldu zergatik uste duzuen proiektua interesgarria dela).

Fortalezas del proyecto (explicad por qué pensáis que es interesante el proyecto).

Proiektuaren ahuleziak (azaldu zertan beharko duzuen laguntza handiena, zein den proiektuaren gabeziarik edo ahuleziarik handiena).

Puntos débiles del proyecto (explicad en qué aspecto o aspectos consideráis que necesitaréis más ayuda, cuál o cuales son los puntos débiles del proyecto).



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



www.vitoria-gasteiz.org/haziak
www.vitoria-gasteiz.org/haziak

Proiektua egiteko behar den denbora (proiektua noiz hasi eta noiz bukatuko den azaldu).

Calendario del proyecto (señalad cuándo se pretende comenzar y finalizar el proyecto).

Aurrekontua (beharren arabera banatu).

Presupuesto (desglosado según necesidades).



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



www.vitoria-gasteiz.org/haziak
www.vitoria-gasteiz.org/haziak

Behar materialak (zehaztu zer duzuen eta zer beharko zenuketen).

Necesidades materiales (anotad lo que podéis aportar y lo que necesitaríais).

Nola emango duzue zuen proiektuaren berri? (zehaztu zein izango den zuen zabalkunde estrategia).

¿Cómo vais a difundir entre público interesado el proyecto? (explicad la estrategia de comunicación y difusión).



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



www.vitoria-gasteiz.org/haziak
www.vitoria-gasteiz.org/haziak

Informazio gehigarria (zuen proiektuari buruzko bestelako informazioa gehi dezakezu hemen). Bestelako informazioa ere atxiki dezakezue, web orriak, DVDa, e.a.

Información complementaria (escribid aquí información complementaria que queráis añadir sobre el proyecto). Podéis además añadir otro tipo de información como páginas web, DVD, etc.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala